

# txintxarri



## berria



## Herria egiten, kiroletik

Mila pertsona baino gehiagok parte hartu dute kros herrikoian eta gaztetxoek korrika festan / 2-9

TXINTXARRI

# PISARRO

## HORTZ KLINIKA DENTAL

IÑIGO DE LOIOLA, 9 BEHEA  
LASARTE-ORIA TEL: 747 40 33 21

ODONTOLOGIA OROKORRA | ODONTOLOGIA ESTETIKOA | KIRURGIA | ENDODONTZIA | PADI |  
ORTODONTZIA | PERIODONTZIA | ODONTOLOGIA PEDRIATIKOA | ZURIKETA | PROTESIA







Korrikalari zein ipar martxalari, saritu guztiek eta antolakuntzako kideek talde argazkia atera zuten sari banaketa amaitezerakoan. TXINTXARRI



Ikusleek ibilbide guztian zehar animatu zituzten parte hartzaileak. TXINTXARRI

# Lehia eta giro ederra, Lasarte-Oria Bai! krosean

27. Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiak 800 kirolari baino gehiago batu ditu irteera puntuan eta Ormazabal anaien eskertza jaso dute. Helmugan Aitor Etxeberrria eta Irati Larrañaga korrikalariak zein Josep Donaiere eta Cristina Borrás ipar martxalariak izan dira azkarrenak

## Txintxarri

Kirolaz eta herriaz gozatzeko eguna izan ohi da urriko azken igandea duela bi hamarkada pasatxotik, Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoikiari esker. Ostadar SKTk 27. aldia aurrera eramane zuten hilaren 27an eta bikainak izan ziren giroa, antolakuntza eta lasterka nahiz ipar martxako makilekin parte hartu zuten 800 kirolari baino

gehiagoren jarrera. Helmugan azkarrenak Aitor Etxeberrria, Irati Larrañaga, Josep Donaire eta Cristina Borrás izan ziren.

Lasterketa hasteko ordu erdiren faltan, 10:00etarako, hara eta hona beroketak egin eta egin aritu ziren parte hartzaile gehienak; giharrak ondo luzatu eta lasterketa ahalik eta ondoen egiteko gogoz ikusi ahal izan zituen TXINTXARRI-k.

Pixkanaka-pixkanaka bertaratu ziren Geltoki kaleko irteera lerrora. Bertan zain zituzten dantzariak, Andoni Iparragirre eta Bixente Beltran txistulariak eta sorpresa eman zuten Ramon eta Pello Ormazabal anaiak. Aurten antolakuntzak Ormazabal loradendari eman dio 1 zenbakidun dortsala eta aintzatespen hori eskertze aldera *Aurrekua* dan-

tzatzera animatu ziren. Parean zuten Julen semea eta iloba, korrika egiten hasteko prest eta hunkituta. 10:30erako abiatu ziren lasterkariak, puntu-puntuan. Jarrera, ipar martxalarien txanda izan zen. Batzuk zein besteak animatu zituzten alboetan pilatutako herritarrek eta Asier Odriozola aurkezleak.

Ipar martxalarien kategorian, berriz, Gironatik etorritako taldeko kideak izan ziren nagusi gizonezkoetan nahiz emakumezkoetan: Josep Donaire (37.07) eta Cristina Borrás (38.25) izan ziren irabazleak. Modalitate horretako kirolariek 5 kilometroko ibilbidea urratu zuten; lasterkariek, berriz, 10 km. pasatxokoa.

## Etxeberrria garaile

Azkar ihes egin zuten gerora lehen lau sailkatuak izan ziren Aitor Etxeberrria, Amets Aramberri, Ignacio Tanco eta Jon Presa herritarra. Lauak nor baino nor gehiago ibili ziren ia bukaerara arte. Geltoki kaleko zuzengunean nahiko pareko iritsi ziren aurreneko hiruak (Presak ezin izan zien eutsi) eta azken erritmo aldaketa jo zuen Etxeberrria. 31 minutu eta 58 segundotan geratu zuen kronometroa.

Lehen emakumezkoa Irati Larrañaga usurbildarra izan zen eta 39.37ko denbora egin zuen. Bigarrena Amagoia Fernandez de Lezea herritarra (41.14) izan zen eta, hirugarrena, Laida Oiz (42.02).

## Merezitako sariak

Sari banaketa egin zuten proba nagusiari amaiera emateko, Okenedo plazan. Bi lasterkari azkarrenak, eta ipar martxalariak txapela bana jantzi zuten. Gainera, kategoria bakoitzeko lehen hiru sailkatuek Aterpea elkartearen establezimenduetan erabiltzeko erosketa bonuak eskuratu zituzten eta Kale Nagusiko tarteko helmugara iritsitako lehenengok, aldiz, *Berria* saria ere bai.

**ETXEBERRIA, TANGO, ARAMBERRI ETA PRESA HERRITARRA NOR BAINO NOR GEHIAGO IBILI ZIREN**

27. LASARTE-ORIA BAI!!  
Krosarekin bat!

**MAITE**  
ESTETIKA ARETOA

Adi korrikalari!  
Hau da fotodepilazioa egiteko unerik egokiena

Ez galdu aukera eta zatoz prezioak galdetzera!  
Zerbitzu mistoak

Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria • Tel. 943-37 08 45

txintxarri  
Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,  
doan eta euskaraz

Zure iragarkia  
jarrinahi duzu?  
Jar zaitez  
gurekin  
harremanetan!

**Deskontu bereziak herrikoentzat!**

ESKATU TARIFAK:  
publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66





## "Erritmo lasaian joan naiz eta bukaeran estutu dut"

IRATI LARRAÑAGA MATXAIN LASTERKARI GARAILEA

Irati Larrañaga Matxain usulbiddarrak Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia du errepidean egiten duen proba bakarrenetarikoa eta aurten garaile izan da. Usurbildarrak oso gustura egin du lasterketa eta indarrak neurtzen egon dela nabarmendu du: "Erritmo lasaian joan naiz eta bukaeran estutu dut. Indarrak neuzkan eta garaipena lortu dut".



TXINTXARRI

Lasterketa egiteko laguntza izan du: "Lagun batek esan zidan lagunduko zidala. Erritmoa berak jarri dit, berak erregulatu dit. Lasterketa honek arriskua du hasieran azkarregi ateratzea. Gero horrek faktura pasatzen du. Beraz, lagunarekin joan naiz eta bera joan da niri erritmoa jartzen. Taldeko bat egin dugu eta uste dut gehienak antzera bukatu dugula".

Ez da ohikoa usurbildarrak errepideko lasterketak egitea, Lasarte-Oriako proba salbuespen bat dela onartu du: "Entrenatzeko

denborarengatik eta errepidean egiten dut, baina lasterketak, mendian. Gehiago gustatzen zait. Errepidean Lasarte-Oriako dut urteroko hitzordua. Bide hauetan ibiltzen naiz entrenatzen. Eta bestea San Silvestrea izaten da". Larrañagak badu arrazoi garrantzitsua horretarako: "Urte askotan Lasarte-Oriako atletismo taldean ibili naiz. Orduan ez nuen korrika egiten, jauziak egiten nituen. Baina hura utzi eta korrika hasi nintzen, eta, konstantziarekin, urtetik urtera azkarrago".

## "Akiles tendoia apurtu nuen eta otsailean hasi nintzen lehian"

AITOR ETXEBERRIA MUGICA LASTERKARI GARAILEA

Duela sei urte Lasarte-Oria Bai! herri krosea garaile izan zen Asier Etxeberria Mugica igeldotarra. Iaz izan zuen lesio batetik osatu eta garaipena eskuratu du berriro Lasarte-Orian.

Etxeberriak espero bezala joan da lasterketa: "Banekien Jon Presa, Tanco eta Amets egongo zirela. Ikusi ditudanean banekien nire lasterketa nola joango zen. Lesio batetik nator eta hasieran kontrolatu eta bukaeran esprintean errematatu". Lasterketan asko gozatu duela nabarmendu du: "Giroa izugarria izan da. Prestaketa moduan, horrelako lasterketa bat egitea beti da polita".

Duela bost urte garaile izan zen igeldotarra eta oroitzapen politak zituen lasterketakoak: "Orduan bai ondo irabazi nuela, baina gaur asko sufritu dut.



TXINTXARRI

Nabaritu dut besteek ere maila igo dutela eta nik jaitzi. Zailagoa izan da". Izan ere, Etxeberriak iaz lesio garrantzitsua izan zuen: "Ez ditut lasterketa asko egin. Akiles tendoia apurtu nuen lehengo urtean eta otsailean hasi nintzen berriro".

Aurten bere helburua gozatzea da, baina badu jomuga bat: "Hurrengo urterako bai dudala markatua Behobia-Donostia. Badakit oraindik urruti dagoela, baina aurrean ibili nahiko nuke".



TXINTXARRI

## "Lehiaketa eta giroa ederrak izan dira"

JOSEP DONAIRE MALAGELADA IPAR MARTXALARI GARAILEA

Josep Donaire Malageladak lehen lasterketa du Lasarte-Oriako. Gironako Ipar marbxako taldeko kidea pozarren dago lortutako emaitzarekin: "Lehen aldia da hemen parte hartzen dudana eta nire lehen lasterketa da. Ez nuen inongo erreferentziarik".

Lasterketa taldeko batean hasi du eta Cristina Borrassen oniritziarekin aurrera egin duela azaldu du: "Cristinak hasieratik bere ondoan egoteko esan dit eta bigarren kilometroan igoeran, aurrera egingo nuela erabaki dut. Atzean utzi ditut eta badaezpada buelta eman dut taldeari begiratzeko. Cristinak aurrera lasai egiteko esan dit eta ez ditut gehiago ikusi".

Giroa eta Lasarte-Oriako ipar marbxako taldearen harrera ere nabarmendu ditu: "Jardunaldia eta giroa primerakoak izan dira. Harrera ederra egin digute. Lasarte-Oriako ipar marbxako taldea ere primerakoa da eta oso eskertua nago taldeak egun hauetan egin duenagatik".

## "Plazer bat da Lasarte-Oriara lehiatzera etortzea"

CRISTINA BORRAS FERRE IPAR MARTXALARI GARAILEA

Cristina Borrás Ferre gironarrak hirugarren txapela du aurtengoa. Gironako Ipar marbxako taldeko buru Ostadar Ipar Marbxako taldearekin asteburua igarotzera etorri da aurten ere: "Lasarte-Oriako ipar marbxako taldea lagun dugu, adiskidetasun handia dugu, urtetakoa.

Kirola ezagutzera emateko eta ekimena babesteko etortzen gara, ipar marbxari ikusgarritasun gehiago emateko. Gero sariak lortzen baditugu, primeran".

Proban lauko taldeko bat egin dutela kontatu du Borrás: "Lehen bi kilometroak elkarrekin egin ditugu.

Baina Josepek beso-zabalera handiagoa duenez, guk baino oinkada handiagoa ematen du eta aurrera egiteko esan diot. Beraz hiru geratu gara gero gure mailako garaipena lehiatzeko. Antzerako erritmora gindoazen hirurak eta azken kilometroan erabaki da garailea. Erresistentzia gehiago izan duenak irabazi du, kasu honetan nik". Eta sentazio oso politak izan dituela ere aipatu du: "Plazer bat da hona etortzea lehiatzera. Giroa eta harrera ederrak dira. Gozamen da berriro



TXINTXARRI

hemen egotea. Podiuma egitean hori handitzen da. Baina niretzat garrantzitsuenak harrera, adeitasuna, antolakuntza, giroa... Guztia primerakoa da".

## ETXEZARRETA HARATEGIA

Bertako okela • Urdaitegia • Eramateko janaria

27.  LASARTE-ORIA BAI!!  
Krosarekin bat!

Zorionak Ostadarreko antolatzaileei!  
eta aupa korrikalariak!!

Hipodromo Etorbidea, 2 • Tel. 943-36 13 79 / 610 44 15 44 • LASARTE-ORIA



CARNE DE VACUNO DEL PAYS VASCO





## "Urtero-urtero parte hartzea espero dut, gorputzak 'bale' esan arte"

JON PRESA LASARTE-ORIAKO LASTERKARI GARAILEA

### Gustura zaude krosean egindakoarekin? Espero zenuen?

Alde batetik bai baina penarekin ere bai, sasoi onean nengoela erakutsi nuelako Hiru Hondartzetako krosean. 6. edo 7. kilometrorako ikusi nuen arerioek ni baino indar gehixeago zutela eta ez nuela lortuko iazko postua eta marka hobetzea. Dena den, amaieraz gozatu nuen behintzat, bukaera aldera erritmoa pixka bat jaistea erabaki nuelako.

**Zein zen zure helburua lasterketa hasi aurretik?** Iaz bezala podiumera igotzea, eta, ahal banuen, irabaztea. Banekien oso zaila izango nuela garaipena Aitor Etxeberria etorri zelako eta saiatu arren ez zen posible izan.

**Zure iritzi, zerk egiten du berezi Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoa?**



TXINTXARRI

Esango nuke herri osoa inplikatzeko delako, beste lasterketa batzuetan ez dut sententzia hori izaten. Aurreko egunetan jendea galdezka, ezagunak ikustearen... Gero, krosean bertan, festa giroa, azken metroetako sententzia berezi hori, lasarteoriatarra naizelako. Lasterketa ez baina beste gutxia primeran ateratu zen. Urtero-urtero parte hartzea espero dut gorputzak 'bale' esaten didan arte.

## "Bigarren emakume sailkatua izatearen erronkari eutsi nion"

AMAGOIA FERNANDEZ DE LEZEA L-OKO LASTERKARI GARAILEA

### Gustura zaude krosean egindakoarekin? Espero zenuen?

Ez, egia esanda, ez nuen espero. Familiartean ateratu nintzen krosean, Eñaut anaiarekin eta lehengusu batekin. Nire gaitasunak zeintzuk diren kontuan izanda ahalik eta ongien egitea zen nire asmoa; Xirimiri ondotik jaitsi eta herrira sartzean jendearen animoak entzuten nituen, une horietan bigarren emakumea nintzela ere bai; estutu eta erronka horri eustea erabaki nuen.

**Erronkari eutsi eta lortu, gainera. Zer moduz helmugaratu zinen? Gogorra egin zitzaizun askorentzat "amaiezina" izaten den zuzengunea?** Lasterketa eta gero denborak begiratu nituen eta azken kilometroa egin nuen azkarren.



TXINTXARRI

Egia da badirudiela ez dela inoiz amaitzen baina beno, iritsi nintzen; hustuta, hori bai.

**Zure iritzi, zerk egiten du berezi Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoa?** Herriko lasterketa da, eta, nire kasuan, familiakoak joan zirenez ikustera, xarma berezia eman zion probari. Egun atsegina izaten da.

**Hurrengo erronka, zein?** Abenduaren 31n Villabonako San Silvestrea jokatuko dut; urtero egiten dut.



TXINTXARRI

## "Giro polita sortzen da; merezi du"

ARANTXA SAROBE L-OKO IPAR MARTXALARI GARAILEA

### Gustura zaude krosean egindakoarekin? Espero zenuen?

Oso pozik nago eta ez nuen espero, ateratzen garenon artean batzuk azkarrago iritsi ohi direlako. Indarrez sentitu nintzen eta gustura egin nuen; iritsi nintzenean sorpresaz hartu nuen.

**Zein zen zure helburua?** Ostadar Ipar Martxalari taldekideekin batera parte hartzea aurten ere. Gainera, Gironatik etorri da Cristina Borrás eta bere taldea eta giro polita izaten dugu denon artean; merezi du horrelako lasterketa batean parte hartzea.

**Zerk egiten du berezi Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoa?** Herrikoa da. Hasieran kosta egiten da aldiak igotzea baina erritmoa hartu eta laguntzaileak, herritarak... txalotzen ikusten dituzunekoak oso momentu politak dira.

## "Nahiko poliki hasi baina dena ematen saiatu nintzen"

RICARDO ORTEGA LASARTE-ORIAKO IPAR MARTXALARI GARAILEA

### Gustura zaude krosean egindakoarekin? Espero zenuen?

Oso gustura geratu nintzen, bai. Nahiko poliki hasi nintzen baina gero, ez dakit zergatik, nire buruari exijitu eta dena ematen saiatu nintzen; eta, bueno, ongi samar bukatu nuen. Ez, baina, egia esan, momenturen batean burutik pasa

zitzaidan, nire kategorian oso gutxi ginen eta.

**Zein zen zure helburua igandeko lasterketa hasi aurretik?**


Ez nuen inolako helbururik, ongi bukatzea baizik.

**Zure iritzi, zerk egiten du berezi Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoa?**

Ez dakit zerk egiten duen horren berezi, baina egia da egun berezia dela, giro aparta izaten dela. Esan daiteke herri osoak hartzen duela parte, modu batera edo bestera.

**Igandeko giroaz gozatu zenuen?**

Bai, noski. Gainera, krosean nire bi semeekin batera (nork bere



TXINTXARRI

modalitatean) parte hartu izana gozamenerako arrazoi doblea izan da niretzat.

Continental  
The Future in Motion

A2car

Zumaburu, 18 Lasarte-Oria Tel: 943-36 24 63

Ekipatu zure kotxea Continental gurpilekin eta **ERREGAIA** edo **KARGA ELEKTRIKOA** **BONUA** eskura dezakezu (80€ arteko) azaroaren 4tik abenduaren 18ra



serigrafiaiosu.com



Serigrafia  
Tanpografia  
DTF  
Bordatuak

Dedikazioa, esperientzia eta konpromisoa  
Xehetasun bakoitzak balio duen tokian





# Aintzatespen osteko sentipenak, ahotan

Ormazabal familiarekin elkartu da TXINTXARRI, 27. Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia ostean, egun horretan bitzakoez mintzatzeko. "Pozik" agertu dira Ramon, Pello eta Julen senideak; eguna nolakoa izan zen kontatu diote aldizkariari

## Txintxarri

"Pozik eta eskertuta" agertu dira Ormazabaldarrak iragan igandean, hilaren 27an, aurrera eramandako 27. Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia esker bitzakoez. Horren berri izan asmoz, Ramon eta Pello Ormazabal anaiekin eta horietatik lehenaren seme Julekin elkartu da TXINTXARRI aldizkaria.

Esker oneko agertu da behin eta berriz Ramon. Lehenik eta behin, krosaren antolatzaile Ostadar SKTrekin eurak omentzeatik. Kirol probak duen dimentsio eta garrantziak mintzatu da gero: "Oso hitzordu inportantea da; ikusi besterik ez dago zenbat



Ezker-eskuin: Ramon, Julen eta Pello Ormazabal, loradenda atarian. TXINTXARRI

parte hartzaile biltzen dituen bai lasterketa nagusiak eta baita Korrika Festak ere. Kontuan izatekoa da ere herrian sortzen duen giroa". Hitzoi honako adierazpenok gehitu dizkio Pello anaia: "Eguna bera ederra da, areago aurtengoa, baina probaren aitzakian herrian pare bat asteburu lehenago ikus daiteke mugimendua, eta hori oso polita da". Anaia bezala, berak ere esker hitzak zuzendu dizkie antolatzaileei, eta egiten duten lana goraiatu du: "Lasarte-Oria Bai! Krosaren leloan jarri nahiko nuke arreta. Herri hau gaztea da, baina indartzen ari da, eta horren erakusle da lasterketa hau ere. Ni kulturaren esparruan aritzen naiz gehien, eta eremu horretan ere pauso gehixeago ematea gustatuko litzaidake herri apur bat gehiago egiteko".

Aurrekoa dantzatzeko unean "urduritasuna" antzeman zuela ere kontatu du Ramonek: "Ez zen dantza egite soil bat, Ostadar SKTri eta Lasarte-Oria eskerrak emateko modu bat baizik".

Horrekin batera, herria egiteko kolektibo gisa jardutearen garrantzia azpimarratu du: "Gure herriari bizia emateko oso ga-

rantzitsuak dira herriko eragileak, merkataria, ostalari eta zerbitzuak eta erakunde bera; denon artean egin behar dugu gure Lasarte-Oria".

## Lasterkariaren bizipenak

Txikitari Korrika Festan parte hartutakoa da Julen, eta helduen proban ere zenbait alditan egin du korri. Urte horietako guztietako parte hartzea "berezia" dela aitortu du, nahiz eta aurtengoa are gehiago izan den, urtero ez baita 1 zerbakidun dortsalarekin parte hartzeko aukerarik sortzen: "Tbilbidean zehar ikusleek animo ugari ematen dituzte, baina, aurtun jaso dudana bestelakoa izan da; dortsala nik eramango nuela jakin dutenek, hitzordu aurretik ere animo asko eman dizkirate; izan da, aitak bezala, podiumera igoztearekin txantxa egin didanik ere".

Maratoia prestatzen ari da gaztea, eta iragan igandeko proba, horri begira bere burua neurtzeko baliagarria izan zaio. Eginda-koarekin eta lortutako emaitzarekin "pozik" agertu da, helburua iazko denbora hobetzea zelako, eta lortu duelako.

GESTORÍA / FINCAS / INMOBILIARIA

# Betelū

BERME TALDEA








emekin

Gipuzkoako Foru Aldundiak emakume ekintzaileei eskaintzen dien aholkularitza zerbitzu ofiziala gara.

27.



LASARTE-ORIA BAI!!  
Krosarekin bat!

-  **Gestoria**
-  **Aholkularitza**
-  **Inmobiliaria zerbitzuak**
-  **Aseguruak**
-  **Etxebizitzaren administrazioa**

**Betelū** BERME TALDEA  
Aralar plaza, 6 behea  
20160 Lasarte-Oria  
943-36 48 86 | 666 40 91 94  
betelu@berme.eus





# Krosa eta korrika festa, iruditan

Urtero bezala, orotariko unek bizi izan dituzte 27. Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoian edota 22. Korrika Festan parte hartu dutenek. Boluntarioen isileko lana den-dena bere tokian eta orduan prest egon zedin, korrikalari eta ipar martxalarien beroketa ariketak eta hasi aurreko argazkiak, aurten 1 zenbakidun dortsala jaso duten Ormazabal loradendaren ordezkaritza (Ramon eta Pello anaien *Aurrekua* eta Ramonen seme Julenek egindako lasterketa puska), zaleen animoak, korrikalarien poz eta sufrimendu keinuak, helmugara iristearen satisfazioa, Beñat Garcia Escribano herritarraren *Fibromialgia aboratzatzen!* proiektuaren more kolorea, hemendik urte batzuetara nagusien lasterketan parte hartuko duten gaztetxoek grina eta ilusioa... Zaila da horrenbeste jende mugitu eta horrenbeste emozio eragiten dituen ekimen bat argazki gutxi batzutan laburbiltzea, baina orri hauetara ekarri ditu TXINTXARRI-k irudi horietako batzuk. Gainerako guztiak [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) atari digitalean ikus ditzakezue, *Krosa eta korrika festa* kanal bereziaren barruan.



Lasterketari ekin aurretik ongi berotzea ezinbestekoa da. TXINTXARRI



Boluntario pare bat, ibilbidearen gune bat zaintzera abiatu aurretik. TXINTXARRI



Ramon eta Pello Ormazabal anaiek ere 'Aurrekua' dantzatu zuten. TXINTXARRI



Ramon Ormazabal, Julen semeari animoak ematen krosa hasi aurretik. TXINTXARRI



Sufritu bai, baina ibilbideaz ere gozatu zuten parte hartzaileek. TXINTXARRI



Hipodromotik Zubietara bideko bihurtunera itzuli dira zaleak aurten. TXINTXARRI





Beñat Garcia elkarrizketatu zuen helmugan Asier Odriozolak. TXINTXARRI



Korrikalariek eta ipar martxalariek bat egin zuten helmugan. TXINTXARRI



Poz keinuak izan ziren nagusi Geltoki kaleko helmuga lerroan. TXINTXARRI



Ohi bezala, eskobakoak izan ziren helmugaratzen azkenak. TXINTXARRI



Aurten ere argi geratu da Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiak harrobi oparoa duela. TXINTXARRI



Urtero lez, ikusmina sortu zuten gaztetxoek lasterketek. TXINTXARRI



Ostadar Inklusioa saileko kideek 22. Korrika Festan parte hartu zuten. TXINTXARRI





# Herritarren sail

	Ofiziala	Erreala	Km.ko
<b>LASARTE-ORIA BAI! 27. KROSA</b>			
Jon Presa Herranz	00:32:34	00:32:33	03:15
Raul Gómez Margallo	00:33:53	00:33:52	03:23
Julen Ormazabal Ortega	00:35:57	00:35:57	03:36
Jon Ramos	00:36:19	00:36:18	03:38
J. Luis Delgado Arenales	00:37:09	00:37:08	03:43
Iñigo Valdivia Calvo	00:37:29	00:37:26	03:45
Haitz Mitxelena Martikorena	00:37:37	00:37:28	03:45
Xabi Carcedo Gonzalez	00:37:41	00:37:39	03:46
Álvaro Sañudo Acosta	00:37:57	00:37:47	03:47
Ibai Izagirre Agote	00:37:59	00:37:57	03:48
Urko Izagirre Agote	00:38:12	00:38:09	03:49
Manex Irazusta Mujika	00:38:26	00:38:23	03:50
Óscar Rodríguez Ballesteros	00:38:54	00:38:43	03:52
Beñat Los Arcos Ayerdi	00:39:11	00:39:05	03:54
Iñigo Otaegi Beldarrain	00:39:33	00:39:28	03:57
Daniel Lopez Amil	00:39:58	00:39:52	03:59
Mikel Ubegun Lizaso	00:40:00	00:39:50	03:59
Mikel Benito Basurto	00:40:00	00:39:55	04:00
LuismMendoza Ortega	00:40:03	00:39:54	03:59
David Gonzalez Corchuelo	00:40:18	00:40:14	04:01
Jorge Piskun	00:40:32	00:40:28	04:03
Jon Agirre Azkue	00:40:34	00:40:30	04:03
David Martín Blázquez	00:40:35	00:40:28	04:03
Ritxar Marcos Martín	00:40:45	00:40:39	4:04
Marco Salazar Males	00:40:46	00:40:37	04:04
Alexander Juanikorena	00:40:51	00:40:45	04:04
Egoitz Rodriguez Escribano	00:41:08	00:40:58	04:06
Imanol Arteaga Aizbitarte	00:41:13	00:41:04	04:06
Amagoia Fernandez De Lezea	00:41:14	00:40:58	04:06
Unai Saizar Artola	00:41:27	00:41:23	04:08
Gorka Arzallus Tobajas	00:41:29	00:41:17	04:08
Iraitz Del Valle Torres	00:41:30	00:41:24	04:08
Juan Maria Marcos	00:41:34	00:41:29	04:09
Toño Pérez Rodriguez	00:41:38	00:41:25	04:08
Asier Gorostegi Aliri	00:41:40	00:41:40	04:10
Endika Izagirre Inza	00:41:58	00:41:52	04:11
Mikel García Muñoz	00:42:00	00:41:47	04:11
Hugo Martínez	00:42:01	00:41:54	04:11
Iurgi Auzmendi Iturrioz	00:42:06	00:41:56	04:12
Daniel Sebastian Echeverria	00:42:08	00:41:35	04:10
Julen Sasiain Salaberria	00:42:24	00:42:15	04:14
Ander Baile Apaolaza	00:42:28	00:42:24	04:14
Mikel Korta Albizu	00:42:54	00:42:43	04:16
Aritz Solano Garcia	00:42:59	00:42:45	04:16
Pablo Izquierdo Vicente	00:43:04	00:42:46	04:17
Fran Toquero Alvarez	00:43:05	00:42:51	04:17
Igor Sevillano Rodriguez	00:43:20	00:43:06	04:19
Iñaki Urruzola	00:43:22	00:43:12	04:19
Aitor Atorrasagasti	00:43:30	00:43:20	04:20
Leonardo Juarez Araujo	00:43:36	00:43:28	04:21
Beñat Del Olmo Iturriza	00:43:36	00:43:30	04:21
Lander Azkarate Ormazabal	00:43:36	00:43:31	04:21
Iker Iñurrita Alcorta	00:43:38	00:43:29	04:21
Miguel Ángel Taboada Uria	00:43:39	00:43:23	04:20
Andoni Mujika Calonge	00:43:44	00:43:18	04:20
Mikel Villarroya Makazaga	00:43:53	00:43:37	04:22
Aitor Manero González	00:43:56	00:43:48	04:23
Erik Serrano Molinero	00:44:01	00:43:50	04:23
Joaquin Castro Garcia	00:44:03	00:43:55	04:24
Maite Salazar Badiola	00:44:04	00:43:53	04:23
Carlos Escudero Gonzalez	00:44:05	00:43:36	04:22
Unai Furundarena Urkola	00:44:16	00:44:09	04:25
Gorka Lizarraga Erro	00:44:23	00:44:03	04:24
Joseba Vigarra Huertos	00:44:42	00:44:40	04:28
Igor Vaquerizo Moreno	00:44:45	00:44:12	04:25
Unai Iparragirre Iartza	00:44:45	00:44:24	04:26
Aitor Aristegui Letamendia	00:44:49	00:44:32	04:27
Iñigo Sanchez Guerra	00:44:52	00:44:35	04:28
Jesus Lopez Estevez	00:45:01	00:44:47	04:29
Axier Arteaga Garaialde	00:45:04	00:44:45	04:28
Nicolas Garcia	00:45:07	00:44:58	04:30
Óscar Gandía Pascual	00:45:12	00:45:01	04:30
Iker Gandía Gabilondo	00:45:12	00:45:01	04:30

	Ofiziala	Erreala	Km.ko
Mikel Izagirre Aramendi	00:45:17	00:45:03	04:30
Hodei García Pecharromán	00:45:25	00:45:10	04:31
Ander Pecharroman Rodríguez	00:45:28	00:45:20	04:32
Markel Odriozola Mugica	00:45:30	00:45:25	04:32
Ibon Garcia Carrillo	00:45:31	00:45:18	04:32
Carlos Blanco Sanchez	00:45:31	00:45:25	04:32
Oskar Martinez Carretero	00:45:38	00:45:31	04:33
Oier Azpeitia Falcón	00:45:44	00:45:38	04:34
Haimar Calle Roman	00:45:44	00:45:39	04:34
Ander Ormazabal Salaberria	00:45:44	00:45:39	04:34
Carlos Garcia Milikua	00:45:45	00:45:20	04:32
Kevin Tiati Mot	00:45:50	00:45:31	04:33
Sara Beldarrain	00:46:01	00:45:51	04:35
David Mecerreyes Molero	00:46:03	00:45:42	04:34
Aitor Fontecha	00:46:05	00:45:54	04:35
Gonzalo Gurrutxaga Mongelos	00:46:09	00:45:58	04:36
Raul Carret Gallardo	00:46:10	00:45:45	04:34
Nerea Arteaga Martiarena	00:46:19	00:46:08	04:37
Ander Gil Lopez	00:46:28	00:46:22	04:38
Iker Izquierdo Garaloces	00:46:28	00:46:22	04:38
Markel Linazasoro Narvarte	00:46:28	00:46:23	04:38
Ander Herranz Palazon	00:46:40	00:46:29	04:39
Iker Bernardino Roncero	00:46:40	00:46:30	04:39
Alex Garcia Rodríguez	00:46:43	00:46:14	04:37
Naiara Lizaso Arregui	00:46:45	00:46:36	04:40
Aitor Lasa Iraola	00:46:56	00:46:45	04:40
Eñaut Azkarate Alkorta	00:47:03	00:46:35	04:40
Aimar Aristondo Oliva	00:47:08	00:47:02	04:42
Mikel Pelaez De Sosa	00:47:21	00:47:09	04:43
Ivan Perez Porras	00:47:24	00:46:51	04:41
Oscar Calvo Ramos	00:47:24	00:46:51	04:41
Eneko Sarasola Mugica	00:47:24	00:47:10	04:43
Ekain Carrasco Tellaetxe	00:47:24	00:47:15	04:44
Iker Ortega Artola	00:47:29	00:47:04	04:42
Mikel Torres	00:47:37	00:47:12	04:43
Javier Pastor Torrens	00:47:37	00:47:13	04:43
Tomax Arruti Aldalur	00:47:39	00:47:21	04:44
Aitor Elizagarate Sagastibeltza	00:47:40	00:47:21	04:44
Jorge Maryinez	00:47:41	00:47:37	04:46
Javier Martin Prieto	00:47:42	00:47:38	04:46
Mikel Medina Estanga	00:47:44	00:47:29	04:45
Gorka Arroyo Gradilla	00:47:44	00:47:31	04:45
Lierni Arozeta Iturrioz	00:47:46	00:47:19	04:44
Susana Mateo Chinchilla	00:47:47	00:47:32	04:45
Unai Iribarr Zapirain	00:47:48	00:47:35	04:46
Rodrigo Gil Martin	00:47:50	00:47:21	04:44
Asier Olmos Amondarain	00:47:50	00:47:41	04:46
Xabier Saizar Jauregi	00:47:53	00:47:31	04:45
Alex Murillo Sagarna	00:47:57	00:47:51	04:47
Egoitz Amas Pizarro	00:48:03	00:47:44	04:46
Gorka Aristorena Lazarraga	00:48:03	00:47:50	04:47
Ivan Mangas Erauncetamurguil	00:48:06	00:47:59	04:48
Roke Etxezarreta Irazusta	00:48:16	00:48:03	04:48
Javier Moreno Pascual	00:48:17	00:48:03	04:48
Julen Espinosa Teno	00:48:18	00:48:14	04:49
Sergio Espinosa Antunez	00:48:21	00:48:15	04:50
Iñaki Ramos Rodriguez	00:48:23	00:48:06	04:49
Ruben Esteban Llorente	00:48:31	00:48:18	04:50
Asier Aramburu González	00:48:31	00:48:21	04:50
Iosu Sanchez Albes	00:48:35	00:48:02	04:48
Maxi Murillo Paredes	00:48:39	00:48:10	04:49
Ernesto Santamaria Nuñez	00:48:41	00:48:41	04:52
Jorge Iglesias Centeno	00:48:42	00:48:29	04:51
Eneko Sanchez Iraola	00:48:45	00:48:10	04:49
Eduardo Rivas Clemente	00:48:45	00:48:27	04:51
Manex Azkonobieta Illarramendi	00:48:46	00:48:10	04:49
Ibai Telleria Aguaron	00:48:46	00:48:10	04:49
David Ruiz Sanchez	00:48:50	00:48:14	04:49
Mikel Olarra Gratis	00:48:51	00:48:15	04:50
Gorka Monroy Astorga	00:48:51	00:48:16	04:50
Raul Mateos Errazquin	00:48:56	00:48:24	04:50
Endika Mertxan Goitia	00:48:59	00:48:59	04:54
Ana Bienzobas García	00:49:00	00:48:40	04:52
Héctor Alonso Moreno	00:49:05	00:48:38	04:52

Joseba Lizeaga Iturrioz	00:49:05	00:48:38	04:52
Victor Domínguez Cabrero	00:49:06	00:48:46	04:53
Julen San Miguel Ugarte	00:49:07	00:48:36	04:52
Pablo Muñoz	00:49:07	00:48:46	04:53
Axier Otaño Martinez	00:49:10	00:49:04	04:54
Jon Barrantes Arocena	00:49:10	00:49:04	04:54
Unai Clemente Alday	00:49:10	00:49:05	04:54
Egoitz Iartza Arotzena	00:49:11	00:48:54	04:53
Gorka Aristondo Novoa	00:49:11	00:48:57	04:54
Eneko Marcos	00:49:17	00:49:11	04:55
Markel Arzallus Tobajas	00:49:20	00:49:12	04:55
Haritz Aramendi Barbero	00:49:27	00:48:44	04:52
Eneko Aranburu	00:49:30	00:49:14	04:55
Axular Iparragirre Yarza	00:49:30	00:49:14	04:55
Mikel San Sebastian Bengoechea	00:49:30	00:49:14	04:55
Josu Riezu Arregui	00:49:31	00:49:20	04:56
Amaia Sotés Elustondo	00:49:31	00:49:21	04:56
Jon Ibisate Alday	00:49:33	00:48:52	04:53
Laura Sánchez Plaza	00:49:33	00:49:09	04:55
Zigor Lekaroz	00:49:33	00:49:09	04:55
Ametz Fernandez	00:49:34	00:48:59	04:54
Iñaki Fernandez Hoyuelos	00:49:34	00:48:59	04:54
Ramon Altuna Vegas	00:49:34	00:49:09	04:55
Zigor Gallardo Castro	00:49:35	00:49:10	04:55
Iker Sarasola Mugica	00:49:35	00:49:27	04:57
Aitor Soroa Bacaicoa	00:49:35	00:49:28	04:57
Xabat Bergara Amantegi	00:49:36	00:49:26	04:57
Aitor Bravo Portela	00:49:37	00:48:54	04:53
Jose Angel Busto Iglesias	00:49:42	00:49:35	04:58
Ander Marcos Ugarte	00:49:45	00:49:37	04:58
Jaime Blanco Sanchez	00:49:46	00:49:38	04:58
Emilio Hernández González	00:49:58	00:49:25	04:56
Asier Ávila Ruiz	00:50:08	00:49:32	04:57
Raul Arnanz Diez	00:50:17	00:49:37	04:58
Oscar Garcia Clemente	00:50:17	00:49:57	05:00
Xabier Otxoa De Alda Etxeberria	00:50:24	00:49:58	05:00
Maitane Izagirre Izagirre	00:50:24	00:50:04	05:00
Aitor Otamendi Lizarazu	00:50:25	00:50:05	05:00
Ander Iñurrita	00:50:25	00:50:17	05:02
Unai Buron	00:50:27	00:50:18	05:02
Diego Elvira Sanchez	00:50:35	00:50:10	05:01
Iker Elorza Esnaola	00:50:36	00:50:10	05:01
Manolo Lopez Guitian	00:50:42	00:50:09	05:01
Haizea Furundarena Basarte	00:50:44	00:50:35	05:04
Nacho Fernandez Ibañez	00:50:47	00:50:32	05:03
Unai Mate	00:50:55	00:50:08	05:01
Eneko Del Campo Yeregi	00:51:01	00:50:26	05:03
Jokin Lizaso Ibarluzea	00:51:02	00:50:33	05:03
Ekhi Martin Armendariz	00:51:02	00:50:34	05:03
Imanol Guridi	00:51:05	00:50:30	05:03
Isabel Fincias Santamaria	00:51:08	00:50:46	05:05
Yoana Martín Blazquez	00:51:11	00:50:55	05:06
Luis Enrique Gallego Olmo	00:51:11	00:51:11	05:07
Mikel Olaiz Garmendia	00:51:17	00:50:36	05:04
Juanjo Martin	00:51:18	00:50:44	05:04
Aitor Ezkurdia Iturrioz	00:51:22	00:50:50	05:05
Manu Méndez Manuel	00:51:26	00:50:39	05:04
Miguel Granada Nogales	00:51:37	00:51:31	05:09
Borja Granada	00:51:37	00:51:31	05:09
Ander Bardaji Maiza	00:51:41	00:51:14	05:07
Iker Artetxe Mendizabal	00:51:41	00:51:14	05:07
Kamel Hadj-Bouziane	00:51:48	00:51:36	05:10
Aintzane Sarobe Etxeberria	00:51:54	00:51:40	05:10
June Pecharroman Rodriguez	00:51:56	00:51:28	05:09
Leire Centeno Toquero	00:52:06	00:51:51	05:11
Kiara Tobajas	00:52:14	00:51:51	05:11
Antton Martínez Ruiz	00:52:17	00:51:47	05:11
Iñigo Suberbiola Unanue	00:52:17	00:51:52	05:11
Gonzalo Zabala Aldaz	00:52:19	00:51:48	05:11







# Omenaldi bilakatu da urtaroa ospatzeko festa

Udazken festa moldatua egin behar izan dute Zabaletako auzotarrek, eguraldi txarragatik. Altxorraren bila jolasa bertan behera utzi behar izan dute eta pintxo potearentzat aterpea bilatu. Bere horretan mantendu dute, hala ere, Antton Garinen omenezko bertso saioa

## Maitane Aldanondo

Halako jardueretan hutsik gelditzea ohikoa den lehen ilaran eserarazi zuten Antton Garin. Omenduak ohorezko lekua behar zuen eta adi-adi, ezer ez galtzea ahalbidetuko ziona. Alboan, auzo elkarteko Joxe Goikoetxea, eta atzean, aulkiak bete zituzten 60 bat lagun. Gelaren atzeko aldean ere pintxo-poterako edariak eta jakiak prestatzen aritu ziren zenbait kide, saioak iraun zuen ia ordu eta erdian.

Amaia Agirre herritarrak egin zuen aurkezle-gai jartzaille lana, Garinen hitz, kontakizun edota bizipenetatik abia-

tuta. Azken ardua horretan laguntzaileak izan zituen pantiailaren beste aldean: Andoni Otamendi, Ane Labaka eta Eli Pagola. Bertsoan, berriz, Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze aritu ziren, baina bertan ziren Unai Muñoak eta Iñaki Zelaiak ere bana bota zuten, Unai Agirrek bidez moduan, eta Juanjo Uriak idatzitakoari, Agirrek jarri zion ahotsa.

## Omenduaren hitzak

Saio amaiera aldera koplaka aritzeko prestatu zen omendua. Horren aurretik, Joxean Iparragirrek egindako egurrezko irudia oparitu zion auzo elkarteak,

Joxe Goikoetxearen eskuetatik jaso zuen, eta bertsoan hasi aurretik "nire aitonaren antza" duela bota zuen.

Eta esker hitzak ere izan zituen. "Mila esker denoi: Amaia, Maialen, Aitor, denbora batean elkarrekin aritu ginen hemen azaldu diren bertsolari guztiei, Juanjo Uriari eta hemen zaude ten auzotar denoi. Mila esker. Zorionak bihotz-bihotzez nire partetik. Aupa Zabaleta! Segiko dugu aurrera arnas pixka bat dugun bitartean". Txalotu zituzten bere esanak eta hunkitu zen Garin. Aurpegian zirrara nabari bazitzaion ere, malkoei eusteko gai izan zen. Agurreko



Lepo bete zuten auzo elkartea bertso saioa ikustera joandakoek. TXINTXARRI



Joxe Goikoetxearen eskuetatik jaso zuen oroigarria Antton Garinek. TXINTXARRI

bertsoak albotik jarraitu zituen, oroigarria besapean eta makila eskuetan zituela.

Bertso saioa amaitu zenerako, auzo elkartearen Basotxo pla-

zako lokalaren kanpoaldean jarritako estaldura azpian sardinak erretzen hasiak ziren, edatekoarekin batera nahi zuenak mokadua egin zezan.

## Gakoa: elkarbizitza

Kulturartekotasunari buruz hausnartu du hil honetako borobilak. *Lasarte-Oria: harrera herria?* izan da solasaldiaren izenburua, eta ekimenaren antolatzaileek gai horrekin lanean ari diren hiru eragile gonbidatuko ditu: AMHER Hernaniko Elkarte Multikulturala, Zaldibiako Lardizabal Herri Eskola eta Orioko Zaragueta Herri Eskola.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

## Azken Ostirala egin dute

Hilabetero bezala, Azken Ostirala aurrera eraman du Lasarte-Oriako Sare Herritarrak, eta 60 bat lasarteoriarrek parte hartu dute Elizatze eta Okendo plaza lotu dituen mobilizazioan. Pankartaren leloa pixka bat aldatu da, Aitzel Iriondo kenduta, baina aldarriak bere horretan darrai. Okendo plazan eman dute urriko idatziaren berri.



TXINTXARRI

## LOOPA elkarretaratzea

Lasarte-Oria Osasun Publikoaren Alde (LOOPA) herri plataformak deituta, dozenaka lagunek bat egin zuten Okendo plazan hilaren 26an egindako elkarretaratzearekin. Apirilean egindako lehen manifestaziotik urte erdi igaro bada ere, konponbiderik gabe jarraitzen dutela salatu zuen. Horri lotuta, Lasarte-Oriako osasun zentroaren egoera berriro agerian jarri eta orain arte Administrazioak "erantzun eraginkorrak" emateko erakutsi duen "gaitasun falta" deitoratu zuten beste behin.

Lehenengoz kalera irten zirenetik urte erdi luze pasatu bada ere, irtentzea ez da iritsi eta aldarrikatzen jarraitzeko beharra berretsi zuten. "Abandonatuta sentitzen gara edo manipulatu ere bai, administrazio publikotik bertatik osasun-sistema pribatura isil-isilik bultzatuak, osasunaren merkatarien pozerako. Osasunak eskubide izateari utzi dio; prezio bat jarri diote". Hurrengo jardueraz azaroaren 21ean egingo dute: Ahoztar Zelaieta kazetariak *La privatización de la sanidad en el oasis vasco* liburua aurkeztuko du kultur etxean.





BERTSOZALE ELKARTEA

## Labaka, irabaztetik gertu

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final laurdenak jokatzeko ari dira eta saioetako batean aritu da Ane Labaka Mayoz, Azkoitiko Baztartzo antzokikoan. Lan oso txukuna egin arren (Unai Mendizabal Jauregi irabazleak baino zortzi puntu gutxiago soilik bildu

ditu: 477,5), ez du finalurrekoetara zuzenean sailkatzeko txartela poltsikoratu eta Tolosan igande honetan (azaroak 2) gertatzen denaren arabera jakingo du azken hemezortzi bertsolarien artean izango den ala ez.



TXINTXARRI

## Alemaniar giroko afaria

Saustatxo elkartearen lekukoa hartu zuen Extremadura Etxeak hilaren 25ean eta ukitu alemaniarreko otordua aurrera eraman zuen. Egoitzan bildu ziren 36 pertsonak honakoa dastatu zuten lau garagardo motaz lagunduta: saltxitxak, ukondoa patata purearekin,

gazta eta irasagarra. Noizean behin musika ere izan zuten eta baten bat animatu zen, txantxa moduan izan bazen ere, dantza egitera. Izan ere, halakoetan, menuan ageri ez bada ere, umore ona osagai ezinbestekoa baita.

## Torrecillasekoen bazkaria

Torrecillas de la Tiesa (Extremadura) herriko biztanle ugari bizi dira Gipuzkoan barrena eta berriki elkartu dira 172 pertsona Urnietako Oianume jatetxean. Ederki pasa zutela azpimarratu dute antolatzaileek: bapo bazkaldu ostean probintzia horretako ohiko jaki gozoak jan eta kantuan eta dantzan aritu ziren Enrique Vegaren kontzertuan.



CORO MURILLO



NEURE KABUZ  
JULEN BASTERRA

## Troiako zaldia

Ez dakit gaurko pentsamenduaren hariari tiraka aritzea oso sanoa ote den, baina, buruan aldioro bueltaka dabilenez irtenbidea eman beharrean aurkitzen naiz. Izan ere, bada nire barruan pentsamendu bat bizitza hau ez dela naturala esaten didana. Alegia, bizi dudana ingurua, etxea, lagunak, bizilagunak, herritarrak... ez direla giza naturaren parte, baizik eta ohituren poderioz solidifikatu den egunerokotasun estraino bat dela guztia, naturaren aurkakoa edo artifiziala den zerbait, nolabait esatearren. Pentsamenduaren hariak korapilo honetara eramaten nau azkenean: gizarte hau ez da naturala.

Hau izorratzea hau! Nola aterako naiz orain hemendik? Nik naturala izan nahi dut!

Lasai, ez gaitzen pentsamenduaren tranpa honetan erori, korapilo hori ez baitago inolaz ere askatzerik... Korapiloa onartu eta tiraka ez segitzea besterik ez zaigu momentuz geratzen. Gizarte hau ez da naturala eta ez du izan nahi, baina errealitate horren aurrean ni non eta nola kokatuko naiz? Gizarte hau naturala ez baldin bada, nor izango naiz ni? Zer egiteko prest nago?

Argia ikusten dut orduan tunel beltzaren amaieran: nire baitan artifiziala dena ezabatzea, horixe da bidea. Honek, gezurra nire bihotzetik ateratzea eskatzen dit. Ariketa sakon eta zaila da hau, norberaren programazio mentalari antibirusa pasatzearekin alderatu dezakeguna. Izan ere, hortxe daude kanpotik etorri diren ehundaka "troiar" gure sinesmen sisteman instalatuta. Birusak bezala dira sinesmenok, ez digute guk nahi bezala funtzionatzen uzten, beste batzuek nahi duten bezala baizik, batzuetan oso azkar eta beste batzuetan erabat blokeaturik uzten gaituztelarik aurrera egin nahi dugun bizitzaren esparrutan. Birus edo sinesmen arrotzok identifikatzeko, hasieran, laguntza "informatikoa" beharko dugu, gai honetaz dakien norbait (psikologo, xaman, mediku, lagun...) ezinbestekoa izango da. Eta, kontzienteki programazio berriak instalatu beharko dira amaieran, norberaren pentsatzearekin eta sentitzearekin bat datozenak.

Gauzak honela, gure eguneroko ekintzak aktibatzen eta baldintzatzen dituzten sinesmen arrotz hauek identifikatzeak berebiziko garrantzia hartzen du bizitza natural bat bizi nahi dugunontzat. Azken buruan, pentsamenduaren harresiak zaintzea, egunero praktikan jarri beharreko lana bihurtzen da, eta gehienetan bakarrik aurre egin beharko diogu lan zail eta amaitezin honi. Ez gaitze inozoak izan, egungo gizartean, Troiako Zaldia gure harresietara iritsiko dira egunero, gure sinesmen sisteman sartzeko ahaleginetan. Nor izan behar garen, nola jokatu behar dugun, eta beste mila kontu xuxurlatuko dizkigute belarrira. Alabaina, bereizten jakin beharko dugu: pentsamendu honek bizitza natural batetatik gertuago ala urrunago ipintzen nau? Norena da pentsamendu hau? Nondik dator? Nora narama?

Nork daki, gauzak ongi bereizteko gai bagara baliteke egunen batean geure burua ezagutuko dugun eguna iristea.

## 'Faktoria' saioari aitortza

"Gertutasuneko irratia barioak egunero euskaraz islatzeagatik", Faktoria Magazina irratsaioak Ondas saria irabazi du berriki. Lantaldeak azaroaren 14an (ostegunarekin) jasoko du irratia nahiz telebistaren sektoreetako aintzatespen garrantzitsuenetako bat,

Bartzelonako Liceu antzokian. Hiru herritar ari dira gaur-gaurkoz Euskadi Irratiko saio horretan lanean: Maider Seguro-la gidaria, Asier Odriozola kazetaria eta Mikel Retegi teknikaria.

SER kateko Radio Barcelonak ematen ditu Ondas sariak urtero, 1953tik. Gaur egungo izena bigarren aldian hartu zuten, jada argitaratzen ez duten Ondas aldizkariagatik.



## Eguzki Arkupe Rehabilitacionesek, denboraldiko lehen garaipena

Lasarte-Oriako taldeak Idiazabal Bai Reformas 7-3 garaitu du ligako laugarren jardunaldian

### Txintxarri

Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeak garaipena erdietsi zuen etxean; hilaren 25ean, Ibaizabal BaiReformas izan zuen aurrez aurre Maialen Chourraut kiroldegian eta 7-3 gailendu zen.

Lehia handia izan zen bi taldeen artean neurketako lehen minutuetan. Eguzkik markagailuan aurreratzea lortu zuen, baina aurkariak bana berdindu eta minutuetara aurre hartu zuen markagailuan 1-2koa eginez.

Etxeko taldeak ez zuen burua makurtu orduan eta erasoan indar-



Eguzkiko jokalaria, erasoan. TXINTXARRI

tsu egin zuten hori-beltzek eta partida bina berdintzeaz gain, markagailuari itzulia eman zioten eta

errenta handitu zuten 6-2 jartzera arte.

Aurkaria tartea txikitzen saiatu eta 6-3koa egin zuen. Baina Eguzkik ederki erantzun zuen eta azken emaitza izango zen 7-3koa jarri zuen markagailuan.

### Harrobia, selekzioarekin

16 urtez azpiko Euskadiko selekzioak hilaren 21ean Ibaialde Salburuaren aurka jokatu zuen lagunartekoa, Gasteizen (Araba). Neurketan Eguzki Areto Futbol taldeko Aratz Fuentes Ramos eta Markel Rodriguez Freire izan ziren jokatzeko.

Azaroaren 22an Andaluzian jokatuko den Erkidegoen arteko Espainiako txapelketa prestatzen ari da Euskadi eta urriko azken astean ere egin du saioa. Taldea, Lasarte-Oriako bi ordezkariak barne, hilaren 28an bildu da Loiu (Bizkaia) lan egiteko.



LOKE JUDO

## LOKEko judokak, podiumetan

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) Judo saileko kideek domina uzta izan dute. Kirol elkartekoak senior mailako Gipuzkoako txapelketako lehen postuetan izan ziren hilaren 27an, Urnietan. Lau kirolari igo ziren podiumera; Almiraye Camposek urrezko domina jantzi zuen, Asier Sagastik zilarrezkoa eta Suhar Aristegi zein Ulises Ortegak brontzeak. Ekhi De la Cruz bosgarren postuan sailkatu zen. Egun bat lehenago kadeteak Iruñeko Anaitasuna torneoan lehiatu ziren. Anne Linazasoro, Iraia Diez eta Unai Curiel hirugarren sailkatu ziren maila ezberdinetan. Adriano Da Silva, Iago Izquierdo eta Francis Mihain kideek ere lehiaketa ona egin zuten. Azaroaren 3an, LOKEko judoek senior mailako Euskadiko txapelketari egingo diote aurre, Zarautzen.



Lander Zabala eta Eneko Sanchez, Beltzak RTko banderarekin Sevillan. BELTZAK RT

## Beltzak RTko Sanchez eta Zabala, Andaluziaren aurka

Herritarrak 18 urtez azpiko Euskadiko selekzioarekin jokatu dute Erkidegoen arteko txapelketako jardunaldia

### Txintxarri

Beltzak RTko harrobiko kide Eneko Sanchez Martinez eta Lander Zabala Ugartemendia gazteek 18 urtez azpiko Erkidegoen arteko Selekzioen Espainiako txapelketari hasiera eman diote Euskadiko selekzioarekin.

Lehen jardunaldian Sevillara (Andaluzia) egin zuten bidaia herriko gazteek, hilaren 27an. Andaluziaren aurkako neurketan bigarren zatian sartu ziren biak zelaira. Lehia handia izan zen. Nahiz eta lehen minutuetatik Euskadi markagailuan aurretik

joan, andaluziarrek neurketari itzulia eman eta puntu batengatik eraman zuten garaipena, 14-13.

### Ohorezko mailan eta European

Bestalde, Jon Ibisate Alday herritarrak hilaren 12an Ohorezko mailan debuta egin zuen epaile modura Pozuelo Rugby Union eta Unio Esportiva Satboniana norgehiagokan, Madrilen eta 20an, Europako Superkopako Brussels Devils-Bohemia Warriors partidari laguntzaile lanetan izan zen, Bruselan, Belgikan.

## Kadete Errendimendu Zilarra taldeak, ezin Arri BKL Txindokirekin

Partida borrokatua jokatu arren, beasaindarrek bigarren laurdenean eskuratutako errenta erabakigarria izan da

### Txintxarri

Ostadar Saskibaloia saileko Kadete Errendimendu zilarra taldeak Arri BKL Txindoki izan zuen aurkari hilaren 26an, Maialen Chourraut kiroldegian. Etxeko taldeari bigarren laurdenean ihes egin zion partidak eta aurkariak eraman zuen norgehiagoka, 50-57.

Bi taldeak indartsu atera ziren kantzara. Nahiz eta beasaindarrak aurretik jarri, azken minutuetan hiruko bat eta bi saskiratzeri esker, urdin-beltzak izan ziren lehen laurdenean eskuratu zutenak 13-10.

Pozak ez zien iraua, ordea. Arri BKLk erasoan gogor jo eta berriro markagailua aurkariaren alde jarri zuen. Ez hori bakarrik zarpiko



Neurketako irudia. TXINTXARRI

errenta lortu zuen. Atsedendia ostean, Ostadarreko jokalaria garaipena buruan atera ziren. Lehia borrokatua izan zuten bi taldeek eta azken laurdenean emaitzak horren erakusle dira, hamazazpina eta hamabina berdindu zuten. Baina azken emaitza 50-57 izan zen.



OSTADAR IPAR MARTXA

## Gironako lagunaren bisita

Lasarte-Oria Bai! herri krosari eskainitako orrialdeetan agertzen den modura, Ostadar Ipar Martxako kideek Nordic Walking Girona taldearen bisita jaso zuen hilaren 25etik

29ra. Hilaren 26an, bi taldeak Herniora igotzekoak izan arren, eguraldiarengatik plana aldatu eta Donostiako hiru hondartzeko ibilbidea egin zuten. Hilaren 27an, kosean parte hartu ostean, indarrak berreskuratu eta Haizearen orrazia zein Igeldo mendia bisitatu zituzten. Azkenik, hilaren 28an, Zumaiako flyscharen txanda izan zen.



# KOMERTZIO TXIKI HERRI HANDI

## LASARTE-ORIA



### BARNE-DISEINUA

**SUGATE**  
SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
  - AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
  - HORMA-ARMAIRUAK
  - MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5  
Lasarte-Oria  
Tel: 943-361 471  
[www.sugatecocinas.com](http://www.sugatecocinas.com)



### ELEKTRIZITATEA

**ELECTRICIDAD  
ARREGUI**

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA  
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21  
600 85 75 86 [www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)  
[tienda.electricidadarregui.com](http://tienda.electricidadarregui.com)

# GRE MI OAK



### IGELTSERITZA

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza Orokorra



- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 05 93 92 - 943-56 66 40  
[uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com) - [www.uraitz.com](http://www.uraitz.com)  
Hipodromo etorbidea, 10 LASARTE-ORIA



### KRISTALDEGIA ETA LEIHOAK

**ANORGA TXIKI S.L.**  
KRISTALDEGIA



- Komertzial instalazioak
- Beira bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
  - Ispiluak
  - Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA  
943-37 17 33 • 610 45 93 45  
[www.cristaleriaanorgatxiki.com](http://www.cristaleriaanorgatxiki.com)



### PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK

Pertsianak, motorizazioak,  
barandak, toldoak, armairuak,  
eltxo sareak eta gehiago...

☎ 943-36 64 95  
[ventanas\\_isu@hotmail.com](mailto:ventanas_isu@hotmail.com)

Kale Nagusia, 46 behea.  
LASARTE-ORIA  
Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala  
USURBIL



ZURE NEGOZIOA IRAGARRI NAHI DUZU HEMEN?  
PUBLIZITATEA@TTAKUN.EUS | 646 82 44 66



## ZORION AGURRAK



**Haritz**  
Boooooom! Zer izan da soinu hori? Uau, zenbat indar duzun besoetan! Nagusi *Excel*entea zara; taula gora, taula beheara...boom gure buruek! jajaja. Tortila ere halakoa espero dugu: bikaina!

## AZOKA TXIKIA

## ETXEBIZITZA

## SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

## ERRENTAN EMAN

Bi neska gazte gara eta pisukide baten bila gabilta. Etxea Zabaleto auzoan dago. 200 euro dira logelaren prezioa gehi gastuak aparte. Interesatu bazaude idatzi edo deitu telefono honetara: 663 93 51 76.

## ERRENTAN HARTU

Apartamentu txiki bat alokatu nahi dut, epe luzearako. Goizez deitu: 687 05 82 12.

## LANA

## ESKARIA

Batxilergoko Bigarren mailako ikaslea naiz eta edozein irakasgaietako klase partikularrak emateko prest nago. Harremanetarako, 678 17 15 99.

## BESTELAKOAK

## EMAN

Pitbull arrazako txakurra oparitzen da. 9 urte ditu eta baserrian

ohitua dago; oso ona da. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

## SALEROSKETA

Helduentzako trikizikloa saltzen dut. Interesdunek 630 85 57 96 telefono zenbakira dei dezate.

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTEGUNA 31	LASA	Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
OSTIRALA, 1	DE MIGUEL	ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
LARUNBATA, 2	DE MIGUEL	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
IGANDEA, 3	DE MIGUEL	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTELEHENA, 4	GIL	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
ASTEARTEA, 5	ACHA-ORBEA	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
ASTEAZKENA, 6	KNIESE	KNIESE: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
OSTEGUNA, 7	GANDARIAS-URIBE	GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

## GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia: Mañe I Flaquer plaza 6, Hernani. 943-57 64 77

## 'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) webgunean eskuragarri.

## ESKUTITZA

## Ostadar Atletismo saila, 'babesgabe' eta 'etsita'

## OSTADAR SKT-KO ATLETISMO SAILA

Ostadar SKTko atletismo saileko arduradun Amaia Andresek eta Oscar Goikoetxeak atletismoko entrenamenduak aurrera eramateko pairatzen ari garen egeeraren aurrean, ADIERAZTEN DUGU:

1.- Komunikatu honen helburua da atletei eta euren familiei gure lana burutze hutsarengatik aurkitzen ari garen egoera, aurrekariak eta kezkek azaltzea.

2.- Publikoki eskerrak eman nahi dizkiegu, familiei eta atletei (116), egunerokotasunean bizitzen ari garen une korapilatsu hauetan beraien laguntza eta ulermenagatik.

Halaber, horiekin guztiekin dugun konpromisoa berretsi nahi dugu: atletismoa sustatzea, balioetan hezte eta beti ingurune seguruetan egitea.

3.- Badakigu pista berrira sartzen garenean, gure jardueraren garapenak jauzi kualitatiboa emango duela eta "tunel" honetatik pasa behar gara Atsokarreko pistaraino iristeko. Baina bidea ez da xamurra izaten ari.

4.- Maiatzean udal arduradunen adierazpenak agertu ziren prentsan

(DV) eta ekainean pista martxan egongo zela zioten.

5.- Gaur-gaurkoz, ez dugu informazio ofizialik jakiteko noiz sartu ahal izango garen instalazio berrian.

6.- Atleta federatuek (25 inguru) astean 1-2 egunetan joan behar dute Anoetara Kirol Sailak eman dizkigun sarrera-bonuekin.

7.- Gure materiala eramateko Donostiarra egin ditugun bidaiak auto partikularretan egin behar izan dira, Bretako gimnasioa eta materiala ezin ditugulako erabili. Gaurko egunez, kilometrajearen egiaztagiriak aurkeztu ondoren, ez da egin inolako diru itzulketarik.

8.- Atletismo eskolako atletei dagokienez, apirilean (data horretan utzi behar izan genion moduluan lan egiteari) ikastolaren batean entrenatzea proposatu ziguten.

Gurasoekin hitz egin ondoren eta gure adingabeok atleten ongizatean pentsatuz, uko egiten genio aukera horri, logistikoki eta kirol arlotik ere bideragarri ikusten ez genuelako.

9.- Gaur egun kirol teknikariek tenis kantxa bat (30 m.) esleitu digute, non 50

personek inguru elkartzen garen (helduak eta adingabeak).

Egoera horren berri eman diegu teknikariei, baina ez dugu erantzunik jaso.

10.- Michelin kirol guneko futbol zelaiaren zati baten erabilera negoziatu behar izan dugu, behar bezala entrenatu ahal izateko. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu Ostadarreko futbol eta errugbi sailei.

Kudeaketa hori ez litzazuke guri egokitu behar, udal teknikarien eginkizuna dela deritzogu, udal instalazioak baitira.

11.- Tenis kantxan bestelako jarduerarik badago (adibidez, adinekoen asteko bazkaria) beste leku batzuetara joan behar dugu.

Futbito zelaiaren futbol taldeen berokete guk behar bezala entrenatu ahal izatearen gainera lehentasuna (larunbatak) du. Guk nola edo hala "bizimodua atera" behar dugu.

12.- Indar ariketak egiteko eta materiala uzteko erabiltzen dugun jangela behin baino gehiagotan urez bete da, lehen joan den maiatzean. Abisua eman genuen, baina ez da ezer egin.

Duela aste bateko berriro bete zen urez. Gimnasioa behar dugu, EZ biltegia.

13.- Atsokarreko pista berriaren erabilera ordutegia erabakitze aldera eta futbolarekin uztartu ahal izateko, atle-

tismo atalak, kirol teknikarieren eskariz, planteamendu bat egin zuen. Atsokarrean joan arte, hori guztia patronatuen eta Michelin kirol gunean entrenatzen duten erakunde eta taldeen laguntzaren menpe geratzen zen. Teknikarieren erantzunik ez dugu izan.

## AMAIERA GISA:

. - Gure kirolariek kiroldegiko kuotak ordaintzen dituzte, nahiz eta instalazioak egokiak ez izan.

. - Zergatik ez da gure lana errespetatzen?

. - Zergatik ez digute informazio ofizialik ematen egoeraren eta Atsokarrean joateko epeen gainean?

. - Zergatik kasu askotan ez dira gure deiak edo mezu elektronikoak erantzuten? Hori kudeatzen duten pertsonen eska dakiekeen gutxienekoa dela ulertzen dugu.

25 URTEZ LASARTE-ORIAN ATLETISMOA SUSTATU ETA SUSTATZEKO HELBURUAREKIN LANEAN ARITU ONDOREN, "BABESGABE" SENTITZEN GARA ETA "ETSITA" GAUDE.

HALA ERE, LANEAN JARRAITUKO DUGU...

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

## Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarteak  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

## Administraria

Nerea Garziarena.

## Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

## Publizitatea

Irati Zatarain.

## Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux  
Artetxe, Maitane Rebe, Julen  
Basterra, Lierni Rekondo eta  
Aizpea Amas.

## Banatzaileak:

Egoitz Epelde, Ander Hazas,  
Aimar Hernandez, Nora  
Navarro, Xuban Urdalleta,  
Nikola Iraola eta Iñigo  
Ibarburu.

## Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

## Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)

WhatsApp: 646 82 44 66

[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

## Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4

Tel.: 943-37 14 48 (104)

WhatsApp: 688 68 35 10

[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.300 ale

## BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

## DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

## OSTEGUNA 31

### LASARTE-ORIA Jaia

Gau Beltza aurrera eramango dute Zabaletan. Hau da iragarri duten egitaraua:

**18:30ean**, txokolatea eta gaztainak.

**19:00etan**, txikien beldurrezko ibilbidea.

**19:15ean**, nagusien beldurrezko ibilbidea.

**20:00etan**, akelarrea Basotxo plazan.

**20:30ean**, pintxo potea.

*Zabaleta auzoa, 18:30etik aurrera.*

## AZAROAK 1

### LASARTE-ORIA Musika

Semblante Andaluz koruak 30 urte beteko ditu, eta urteurren hori ospatzeko, musika jaialdia iragarri du. Lasarte-Oriako taldeaz gain, Valentziako Coral Marinyen, Tavernes de la Vallidigna koruak ere emanaldia eskainiko du. *Arantzazuko Ama eliza (Zumaburuko eliza), 19:30ean.*

## AZAROAK 3

### LASARTE-ORIA Zinema

*Zak y Wowo: la leyenda de los lendarys* emango dute, haurrentzat.



### LASARTE-ORIA Lehiaketa

Lasarte-Oriako Udalak antolatutako literatur lehiaketetako aurtengo sariak banatuko dituzte. Ohi bezala, sarituak izango diren parte hartzaileen talentua aritortuko diete.

*Azaroaren 23a, larunbarekin, kultur etxeko hitzaldi aretoa, 12:00etan.*

Sarrerak, 4 eurotan.

*Kultur etxea, 17:00etan.*

### LASARTE-ORIA Zinema

*La infiltrada* emango dute, helduentzat. Sarrerak, 6 eurotan. *Kultur etxea, 19:30ean.*

## AZAROAK 7

### LASARTE-ORIA Dokumentala

*Islada* Ezkutatuak taldearen eskutik *Ezkutatuta zegoen historia* dokumentala ikusteko aukera

izango dute bertaraten direnek. Nazien eremuetara gertatutako euskal deportazioaren gaineko proiektioa da.

*Mercero aretoa, 19:00etan.*

## AZAROAK 8

### LASARTE-ORIA Zinema

*Los destellos* filma emango du Okendo Zinema Taldeak.

Sarrerak, 6 eurotan.

*Kultur etxea, 20:00etan.*

## AZAROAK 9

### LASARTE-ORIA Aurkezpena

*Xomorrotxoak* antzerkia oholtzaratuko du Spasmo Teatro taldeak. Sarrerak, 4 eurotan. *Antonio Mercero aretoa, 17:00etan.*

## AZAROAK 10

### LASARTE-ORIA Zinema

*Bufalo Kids* emango dute, haurrentzat. Sarrerak, 4 eurotan. *Kultur etxea, 17:00etan.*

### LASARTE-ORIA Zinema

*El club de los milagros* emango dute, helduentzat. Sarrerak, 6 eurotan.

*Kultur etxea, 19:30ean.*

## AZAROAK 13

### LASARTE-ORIA Balleta

Balleta gustuko dutenek, hitzordua izango dute; *Alicia en el país de las maravillas* emango dute pantailan. Sarrerak 7,5 eta 9 euro artean balio dute.

*Kultur etxea, 19:00etan.*

## AZAROAK 15

### LASARTE-ORIA Zarzuela

Zarzuela gustuko dutenek, hitzordua izango dute; *La revoltosa* saioa eskainiko du Lirica Sasibil-ek. Sarrerak, 14 eurotan.

*Kultur etxea, 20:00etan.*

## AZAROAK 16

### LASARTE-ORIA Musika

Zero Sette Akordeoi Taldeak 21. Lasarte-Oria Akordeoi Jaialdia aurrera eramango du. Sarrerak, 6 euroren truke eros ditzakete interesdunek.

*Kultur etxea, 19:00etan.*

## AZAROAK 17

### LASARTE-ORIA Zinema

*Rescate en Africa* emango dute, haurrentzat. Sarrerak, 4 euroren truke eros ditzakete interesdunek.

*Kultur etxea, 17:00etan.*

### LASARTE-ORIA Zinema

*La gran escapada* emango dute, helduentzat. Sarrerak, 6 euroren truke eros ditzakete interesdunek.

*Kultur etxea, 19:30ean.*

## AZAROAK 20

### LASARTE-ORIA Literatura

Maria Garcia Laderok istorio ederrak kontatutako dizkie 6 eta 8 urte asteko unerri *Ipuinaren ordua* saioan. Izen ematea, udal liburutegian egun dezakete bertaratu nahi duten herriatreek. *Udal Liburutegia, 17:30ean.*



## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### OHOREZKO ERREGIONALA

##### Ostadar SKT - Touring KE

Igandea. 09:45. Michelin kirol gunea.

#### GORENGO MAILA

##### Danena KE - Ostadar SKT

Igandea. 18:00. Elbarrena, Zizurkil.

#### ERREGIONAL I. MAILA

##### Ostadar SKT - Hernani CD B

Larunbata. 13:05. Michelin kirol gunea.

##### Umietara CD - Texas Lasartearra CF

Larunbata. 18:00. Umietan.

#### OHOREZKO J. M.

##### Ostadar SKT - Zarautz KE B

Larunbata. 18:45. Michelin kirol gunea.

#### JUBENILEN GORENGO MAILA

##### Ostadar SKT - Zumaiaiko FT B

Larunbata. 16:50. Michelin kirol gunea.

#### JUBENILEN I. MAILA

##### Ast. Mundarro KFE B - Ostadar SKT

Larunbata. 15:30. Zarkumendegi, Astigarragan.

### Sporting de Herrera B - Texas

#### Lasartearra CF B

Igandea. 11:00. Herrera, Donostian.

#### Texas Lasartearra CF - Umietara CD C

Igandean. 11:40. Michelin kirol gunea.

#### OHOREZKO K. M.

##### Beasain SD - Ostadar SKT

Larunbata. 11:00. Igarza, Beasainen.

#### KADETEEN I. MAILA

##### Ostadar SKT B - Arrupe Chaminade CDDF

Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunea.

##### Intxardi KE D - Ostadar SKT (neskak)

Larunbata. 10:00. Cesar Benito, Donostian.

##### Usurbil FT - Ostadar SKT C

Larunbata. 10:00. Harane, Usurbilen.

#### INFANTIL TXIKI

##### Billabona KE - Ostadar SKT

Larunbata. 09:00. Arratzain, Villabonan.

#### INFANTILEN I. MAILA

##### Ostadar SKT - Danena KE

Larunbata. 11:30. Michelin kirol gunea.

##### Ast. Mundarro KFE - Texas Lasartearra CF

Larunbata. 09:30. Zarkumendegi, Astigarragan.

### SASKIBALOIA

#### III. MAILA

##### Eibar Saskibaloia B - Ostadar SKT

(atzeratutako neurketa)

Larunbata. 12:00. Ipurua kirol., Eibarren.

##### Ostadar SKT - CD Internacional Intxa

(aurreratutako neurketa)

Igandea. 16:00. Mons kirol., Donostian.

#### J. ERRENDIMENDUA ZILARRA

##### Ostadar SKT - Mondragon Unibertsitatea

Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

#### J. PARTAIDETZA

##### SaskiAxular Basoerdi - Ostadar SKT

Ostirala. 12:00. Benta Berri kirol., Donostian.

#### PILOTA

##### ESKUJ BIN., NAGUSIAK, 3. MAILA, 1/2

##### Behar Zana 1 - Intza KE

Larunbata. 10:00. (2. partida) Behar Zana, Villabonan.

#### ERRENDIMENDU TX., INF. 1. MAILA

##### Intza (Jauregi) - Ilunpe

Ostirala. 18:00. (1. partida) Loidibarren pil.

#### ERRENDIMENDU TX., INF. 2. MAILA

##### Intza KE (Lasa) - Hernani

Ostirala. 18:00. (1. partida) Loidibarren pil.

##### Mundarro - Intza KE (Maiz)

Osteguna. 17:45 (2. partida) Txomineñea pil., Astigarragan.

##### EPLE - Intza KE (Iparragirre)

Ostirala. 09:30. (3. partida) Agustina Otaola pil., Errenterian.

##### Hernani - Intza KE (Lopez)

Ostirala. 11:00. (2. partida) Udaleko pil., Hernanin.

#### JUDO

##### EUSKADIKO TXAPELKETA

##### LOKEko senior mailako judoek

katgoria horretako Euskadiko txapelketa lehiatuko dute.

Igandea. 10:00. Aritzatalde kirol., Zarautzen.

#### ERRUGBIA

##### EUSKAL LIGA, I. MAILA

##### Durango - Gipuzkoa Sortzen

Ostirala. 12:00. Arripauseta, Durangon.

### EUSKAL LIGA, II. MAILA

#### Gipuzkoa Sortzen - Gaztedi

Larunbata. 15:05. Michelin kirol gunea.

#### 18 URTEZ AZPIKO

##### Getxo B - Gesalaga Okelan Zarautz

Beltzak RT

Larunbata. 12:15. Fadura, Getxo, Bizkaian.

#### 16 URTEZ AZPIKO

##### Getxo B - Gesalaga Okelan Zarautz

Beltzak RT

Larunbata. 11:00. Fadura, Getxo, Bizkaian.

#### XAKEA

##### GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Taula Xake Klubeko kideek eta

Lasarte-Oriako xake jokalariek maila

ezberdinetakoko Gipuzkoako

txapelketako jardunaldia lehiatuko

dute.

Larunbata eta igandea. Eibar / Irun.



600 85 75 86 [www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA


Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21

Azken nobedadeak!



Labea

AirFry funtzio anitzeko labea, kozinatzeko 9 funtzio eta HydroClean sistemarekin



Indukzio plaka

8 funtzioekin:

Parrilla, frijitu, plantxa, potxatu, konfitatua, egosi, urtu eta bero mantendu

urriak 24 - azaroak 14

[errigora.eus](http://errigora.eus)

agerraldia

uztara plazara



ikastolenkartea



aek



Sortzen

Eman bultzada,  
indartu euskaraAgerreko uzta  
euskarari puzkaBADATOR URBILERA  
LEGO® Harry Potter™Zatoz Urbilera urriaren 31tik  
azaroaren 16ra eta ezagutu LEGO®  
adreiluekin sortutako Harry Potter  
pertsonaia ikusgarriak.

Ez galdu!

Informazio gehiago  
[www.urbil.es](http://www.urbil.es)

Harry Potter



HARRY POTTER characters, names and related indicia are © & ™ Warner Bros. Entertainment Inc. WIZARDING WORLD is a service mark of WIZARDING WORLD. WIZARDING WORLD trademark and logo are © & ™ Warner Bros. Entertainment Inc. Publishing Rights © JKR. (1/24)

LEGO, the LEGO logo and the Minifigure are trademarks of the LEGO Group. ©2024 The LEGO Group.